

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Pirinioek klima-aldaketaren inguruan duten egokitzapenari buruzko azterketa batean parte hartu du Esparza kontseilariak Toulouse-n

Glaziarrak pixkanaka desagertzen joateak, bero-boladak gero eta gehiago izango direla aurreikusteak eta prezipitazioen jaitsierak epe luzera egokitzapen-estrategiak hartzerara behartzen dute

Martes, 28 de mayo de 2013

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparzak gaur goizean Toulouse-n egindako "Pirinioetako Aktoreak: nola prestatu haren egokitzapena klima-aldaketara?" izeneko mintegian parte hartu du. Jardunaldian, [Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiak](#) agindutako azterketa bat aurkeztu da, eta azterketa hori honako helburu hauekin egin da: Pirinioek klima-aldaketaren aurrean zer ahultasun duten jakiteko, egoera horretara egokitzeko dauden neurriak ezagutzeko eta hainbat esparru ekonomikotatik burutzen ari direnak, eta gomendioen katalogo bat egiteko.

Jada egiaztatu diren batez besteko tenperaturen igoeragatik glaziarrak pixkanaka desagertzen joateak, eta udan bero-boladak handitzeko aurreikuspenak edo etorkizunean prezipitazio gutxiago egiteak ingurumenari ez ezik Pirinioetako eskualdeko garapen ekonomikoko sektoreei ere eragiten diete, nekazaritzari edo turismoari, esate baterako. Alde horretatik, azterketak egoera bakoitzerako berariazko neurriak hartzeko beharra aipatzen du eta, horrekin batera, neurriak hartzea klima-aldaketa erabakiak hartzeko orduan integratzeko eta egokitzapen-estrategia eraginkorren garapenean ere integratzeko, batez ere sektore ekonomiko eta espazio natural ahulentzat. Esparza kontseilariak azaldu duenez, azterketak defendatzen du "erabakietan klima-aldaketari buruzko hausnarketa jasotzea, eta hausnarketa hori benetan eraginkorra izatea, epe laburrean neurriak hartzetik haratago". José Javier Esparzak, gainera,



Esparza kontseilaria, klima-aldaketari buruzko mintegian egin duen agerraldian.

aipatu du "itxura batean aurreikus daitekeela Europako funtsak eskuratzeko kontuan hartuko dela proiektuek klima-aldaketaren inguruko hausnarketa-ariketa bat egin duten ala ez".

Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia

[Pirinioetako Lan Elkartea](#)k Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia (OPCC) 2010ean abian jarri zuen Pirinioetan klima-aldaketaren fenomeno eta haren eragina hobeto aztertzeko asmoz, beharrezko ekintzak finkatzeko klima-aldaketaren ondorioak mugatzearen eta haiei egokitzeko. Horretarako, beharrezkoa da sektore sozio-ekonomiko eta natura-gune ahulenenei zuzendutako egokitzapen-estrategiak zehaztea. Horrenbestez, Pirinioen irudia handitu nahi da, Europa eta nazioarteko mailara, klima-aldaketaren behaketa eta egokitzapeneko eremuetan eta Behatokia OPCCk aztertutako gaiei lotutako Europako sareen barnean integratu nahi da.



Pedro Zuazoren agerraldia (eskuinetik hirugarrena).

`Pirinioetako Aktoreak: nola prestatu haren egokitzapena klima-aldaketara?' mintegia

Groupement ACTeon (Frantzia), BC3 (Espainia) eta Fresh Thoughts (Austria) aholkularitza-enpresek egindako azterketa gaur aurkeztu da `Pirinioetako Aktoreak: nola prestatu haren egokitzapena klima-aldaketara?' izeneko mintegiaren barnean. Jardunaldia Toulouse-en egin da eta Pirinioetako Lan Elkartek antolatu du. Gogoratu behar da Nafarroak duela urria arte mugaz haraindiko lankidetzarako erakunde horren burutza. Midi-Pyrénées eskualdeko lehendakari Martin Malvy-k eta Nafarroako Gobernuako Ingurumeneko Kalitate Zerbitzuaren zuzendari Pedro Zuazok ere esku-hartu duten Esparza kontseilariaren aurkezpenaren ondoren, Jean Louis Etienne mediku eta esploratzaile frantsesak klima-aldaketaren eraginari buruzko hitzaldia eman du. Hitzaldia bi mahai-ingururekin amaituko da: *Zergatik egokitu klima-aldaketari? (Non eta Noiz?) eta Nola egokitu klima-aldaketari?*; mahai-inguru horietan Pedro Zuazok ere parte hartuko du.